

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3061

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 22koa, Kulturako sailburuordearena, 2022. urtean kultura-sorkuntza artistikoa babesten eta sustatzen duten kultura-gune independenteentzako dirulaguntzak (Sorgune) emateko Balorazio Batzordekideak izendatzen dituen eta Batzorde horren osaera argitaratzen duena.

Ikusi da 2022ko maiatzaren 24ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022ko ekitaldian kultura-sorkuntza sustatzeko eta banatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena (Sorgune).

Kontuan izan da aipaturiko Agindu horrek 13. artikuluan xedatzen duela aurkezten diren eska-bideak aztertzeko eta ebaluatzeko balorazio-batzordea eratuko dela, eta 5. puntuan xedatzen duela batzorde horren osaera eta kideak izendatzea eta argitaratzea Kulturako sailburuordearen Ebazpen bidez egingo dela.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio-batzordeko kideak izendatzea eta berorren osaera argitaratzea.

Balorazio-batzordeak kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Aitziber Atorrasagasti Calcedo andrea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak: Enara Garcia Garcia andrea, Xabier Fidel Paya Ruiz jauna, Ane Rodriguez Armendariz andrea, Oskia Ugarte Abarzuza andrea eta Enrique Uriarte Gonzalo-Bilbao jauna (aditu-profesionalak).

Idazkaria: M. Lourdes Aranguren Sudupe andrea (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria).

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 22a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.